


BANDERA-IGOERAN, HAUR DANBORRADAN ETA BANDERA-JAITSIERAN GUZTIOK JOTZEN DUGU

2021 honetan, pandemiak kaleak betetzea eta urtero danborrada egoten den leku enblematikoetan fisikoki egotea eragotziko digu. Hala ere, bai Bandera igoeran, bai Haur Danborradan eta Bandera jaitsieran, donostiar guztiak izango dira protagonistak bere etxetik, bere balkoitik, telebista jarraituz... baina, **beti, guztion osasuna babesteko ezarritako neurriak errespetatuz.**



IFK-CIF Q20005411

Horretarako, egun hauetan hainbat bideo grabatu dituzte. Bideo horiek emango dira San Sebastian Egunaren hasiera —**bandera-igoeraren** bidez—, **Haur Danborrada** eta **bandera-jaitsiera** noiz egin adierazteko. Kasu honetan, helduen zein haurren danborrada guztiei deia luzatu zieten, hala egin nahi zutenek kide kopuru mugatu batekin (danbor bat eta bi upel) grabazioetan parte har zezaten. Grabazio horietan, guztira, **80 danborradek** hartu dute parte (**26k** bandera-igoeran, **29k** Haur Danborradan eta **25k** bandera-jaitsieran).

GUNEA ZONA	BANDERA IGOERA IZADA	BANDERA JAITSIERA ARRIADA
ALTZA-INTXAURRONDO-BIDEBIETA	3	4
AMARA-LOIOLAKO ERRIBERRAK-MORLANS	5	6
ANTIGUA-ANTIGUO	7	4
ERDIALDEA-CENTRO	4	2
GROS	3	4
LOIOLA-EGIA-MARTUTENE	1	2
ALDE ZAHARRA-PARTE VIEJA	3	3
	26	25

Grabazio horietan danborrak zein upelak zuzentzeko boluntarioak ere eskatu zituzten. Aurkeztutakoen artean zozketa egin zuten 6 aukeratzeko (bi bandera-igoerarako, bi bandera-jaitsierarako eta bi Haur Danborradarako).

	DANBOR ZUZENDARIA DIRECTOR DE TAMBORES	UPEL-ERRADA ZUZENDARIA DIRECTOR BARRILES-HERRADAS
IGOERA / IZADA	LEANDRO CARRO (BASO ETXEA)	IRATI ENJUTO (REAL CLUB DE TENIS DE SN.SN.)
JAITSIERA / ARRIADA	ARANTZAZU LERSUNDI (GURE BORDA)	BRAULIO BARREIRO (INTXAURRA)
HAUR DANBORRADA TAMBORRADA INFANTIL	ENEKO ESTEBAN (COLEGIO EL CARMELO IKAST.)	NORA PRADERA (GAZTELUBIDE TXIKI)

Danborradetako kideez gain, grabazioetan **Juan Jose Oconek** zuzendutako Donostiako **Udalaren Musika eta Dantza Eskolako Irakasleen Bandak**, **Donostiako Orfeoak** eta **Kresala Dantza Taldeak** (igoera), eta **Easo Abesbatzak** eta **Goizaldi Dantza Taldeak** (jaitsiera) hartu dute parte.

Igoerara- zein jaitsiera-ekitaldietarako eta Haur Danborradarako grabatutako **errepertorioa danborrada osoan zehar interpretatu ohi dena** izan da, hau da, errepertorio osoa (12 konposizio). **Jaitsiera-ekitaldiaren** kasuan, errepertorio horri beste bi konposizio gehitu zaizkio: **Kosakos del Kazan** eta **Txuri Urdin**.

Grabazioak **ETB**ren emisioan ikusi ahal izango dira hilaren 19ko gauerdian, baita **Udalaren kanal digitaletan ere (donostia.eus eta Danborradaren orri ofizialean: danborrada.donostiakultura.eus)**. Grabazio originalak Donostia Festetako You Tube kanalean ere egongo dira eskuragarri.

BANDEREN BANAKETA

Hiria girotzeko eta bertako balkoiak eta gunee enblematikoak apaintzeko helburuarekin, Donostiako **10.000 bandera** banatuko dituzte. Zehazki, bandera horietako batzuk erakundeen eraikinetan, hoteletan, Kultur Etxetan, etab. banatuko dituzte euren fatxadetan ipintzeko; eta gainerakoak **herritarren artean**, erantsitako taulan adierazten diren lekuetan, egunetan eta orduetan. **Pertsona bakoitzari bandera bat** emango diote bandera horiek amaitu arte.



HELBIDEA		BANAKETA-EGUNAK	ORDUTEGIA
Ijentea 1	UDALETXEA	15 eta 18	10:00-14:00
	KULTUR ETXEAK CASAS DE CULTURA		
Darieta bidea, 1	Casares K.E. / C.C.	15, 16 eta 18	Ostirala eta astelehena: 10:00-14:00 eta 16:00-20:30 Larunbata: 10:00-14:00 eta 16:30-20:00
Nafarroa hiribidea, 7	Okendo K.E.	15, 16 eta 18	Ostirala eta astelehena: 10:00-14:00 eta 16:00-20:30 Larunbata: 10:00-14:00 eta 16:30-20:00
Aiete, 63	Aiete K.E.	15 eta 16	Ostirala 16:00-20:30 Larunbata: 10:00-14:00 eta 16:30-20:00
Anoeta p., 7	Ernest Lluch K.E.	15, 16 eta 18	Ostirala eta astelehena: 10:00-14:00 eta 16:00-20:30 Larunbata: 10:00-14:00 eta 16:30-20:00
Aralar mendikatea, 17	Loiola K.E. / C.C.	15 eta 18	Ostirala eta astelehena: 16:00-20:30
Baztan, 21	Egia K.E. / C.C.	15 eta 18	Ostirala eta astelehena: 16:00-20:30
Txirrita bertsolaria, 22	Larratxoko liburutegia	15 eta 18	Ostirala eta astelehena: 16:00-20:30
Felix Gabilondo, 1	Intxaurrondo K.E. / C.C.	15 eta 18	Ostirala eta astelehena: 16:00-20:30
Intxaurrondo, 57	Larrotxene K.E. / C.C.	15 eta 18	Ostirala eta astelehena: 16:00-20:30
Heriz, 20	Lugaritz K.E. / C.C.	15 eta 18	Ostirala eta astelehena: 16:00-20:30
Añorga Hiribidea	AÑORGA - tabernan		

DANBORRADA KO JANTZIEN ERAKUSKETA

San Sebastian eguna ospatzeko jardueren artean ere Danborradako jantzien erakusketa antolatu da. Danborrada guztiakin —helduenak zein haurrenak— jarri gara harremanetan, hala nahi izanez gero, jantzi bat laga zezaten gure hiriko hainbat dendatako erakusleihotan jartzeko. Zehazki **89 danborradek (helduen 58ek eta haurren 31k) laga digute euren jantzietako bat** danborrada bakoitza irtetzen den guneko dendaren batean erakusteko.

GUNEA ZONA	KALEAK CALLES	KOPURUA CANTIDAD
ALTZA-INTXAURRONDO-BIDEBIETA	SAGASTIEDER ZARATEGI BIDEBIETA LARRATXO OLETA	14
AMARA-LOIOLAKO ERIBERRAK-MORLANS	MADRIL HIRIBIDEA	15
ANTIGUA-ANTIGUO	MATIA	18
ERDIALDEA-CENTRO	GETARIA TXURRUKA ELKANO HONDARRIBIA SAN MARTÍN	9
GROS	SAN FRANZISKO	14
LOIOLA-EGIA-MARTUTENE	ARALAR MENDILERROA EGIA AMETZAGAÑA KARMENGO AMA	8
ALDE ZAHARRA-PARTE VIEJA	NAGUSIA BRETXA	11

IFK-CIF Q20005411

<div style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 10px; text-align: center;"> <p style="font-size: small;">Danborradaren izena / Nombre de Tamborrada:</p> <h2 style="margin: 0;">SANTIAGOMENDI</h2> </div> <p style="margin-top: 10px;">Danborradan hasi zen urtea / Año de incorporación a la Tamborrada: 1995</p> <p>Jantzia / Traje: SOLDADUA / SOLDADO</p> <table style="width: 100%; font-size: small;"> <tr> <td style="width: 50%; vertical-align: top;"> <p>Jantziaren deskribapena:</p> <p>JANTZI NAPOLEONIKOA, KASAKA GORRIAREKIN, TXALEKO BERDEAREKIN ETA GALTZA ZURIKIN. HARTZ-LARRUZKOA DA TXANOA, NAPOLEONEN INFANTERIA FRANTSESEKO KARABINERENA BEZALAKOA</p> </td> <td style="width: 50%; vertical-align: top;"> <p>Descripción del traje:</p> <p>TRAJE NAPOLEÓNICO CON CASACA ROJA, CHALECO VERDE Y PANTALÓN BLANCO. GORRO DE PIEL DE OSO COMO LOS CARABINEROS DE LA INFANTERÍA FRANCESA NAPOLEÓNICA</p> </td> </tr> </table> <div style="display: flex; justify-content: space-between; margin-top: 10px;"> #DONOSTIA #SAN SEBASTIÁN FESTAK </div>	<p>Jantziaren deskribapena:</p> <p>JANTZI NAPOLEONIKOA, KASAKA GORRIAREKIN, TXALEKO BERDEAREKIN ETA GALTZA ZURIKIN. HARTZ-LARRUZKOA DA TXANOA, NAPOLEONEN INFANTERIA FRANTSESEKO KARABINERENA BEZALAKOA</p>	<p>Descripción del traje:</p> <p>TRAJE NAPOLEÓNICO CON CASACA ROJA, CHALECO VERDE Y PANTALÓN BLANCO. GORRO DE PIEL DE OSO COMO LOS CARABINEROS DE LA INFANTERÍA FRANCESA NAPOLEÓNICA</p>	
<p>Jantziaren deskribapena:</p> <p>JANTZI NAPOLEONIKOA, KASAKA GORRIAREKIN, TXALEKO BERDEAREKIN ETA GALTZA ZURIKIN. HARTZ-LARRUZKOA DA TXANOA, NAPOLEONEN INFANTERIA FRANTSESEKO KARABINERENA BEZALAKOA</p>	<p>Descripción del traje:</p> <p>TRAJE NAPOLEÓNICO CON CASACA ROJA, CHALECO VERDE Y PANTALÓN BLANCO. GORRO DE PIEL DE OSO COMO LOS CARABINEROS DE LA INFANTERÍA FRANCESA NAPOLEÓNICA</p>		

DANBORRADA WEB-EAN

Danborradaren web-ak ere bere atal berezia izango du 2021eko ezohiko edizio honetarako. Hala, **danbor-jole gazteenek** Haur Danborradako **konpainia guztien marrazkiak** deskargatzeko eta **margotzeko** aukera izango dute bertan.



 DONOSTIAKO HAUR DANBORRADA
TAMBORRADA INFANTIL DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
ALDAPETA MARIA IKASTETXEA

Udalak zein Donostia / San Sebastián Festak erakundeak gure patroia eguna ospatzeko egin dituzten kanpainak ere ezagutu ahal izango ditugu.

Udalak, erakunde-mailako kanpaina bat egin du. Kanpaina horren bitartez, egun bizi dugun egoera hau **bat egiteko** une bihurtzera animatzen gaituzte, **izateko eta jarduteko modu bat partekatuz** gonbidatzen gaituzte, **gure sentimenduak adierazteko** eta gure barruan sentitzen duguna eta daramaguna **harrotasunez kanporatzeko eskatuz**.

Bestalde, Donostia San Sebastián Festak-ek 10-12 minutu inguruko grabazio bat egin du. Bertan, hainbat donostiarrek —helduak zein haurrak— **Danborradari buruzko euren iritzia ematen digute**, nola bizi duten eta eurentzako aurtengo edizioa nolako izango den azalduz. Bideoa elebiduna izango da eta azpitoluak bi hizkuntzetan izango ditu.

UDALAREN TXISTULARI BANDAREN KONTZERTUA

Urtero bezala, Udalaren Txistulari Bandak San Sebastian egunaren aurretik kontzertu bat emango du. Aurten, kontzertua **urtarrilaren 17an, igandea, 12:30ean** emango du **Santa Maria Elizan**. Bertan sartu ahal izateko gonbidapena eskatu beharko da <https://danborrada.donostiakultura.eus> web-orrian, gehienez **200 lagunentzako lekua** egongo baita.